



2012KO URRIAREN 22KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko urriaren hogeita bian, iluntzeko zortzi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera ematen dio esanez ez-ohiko bilkura hau barneratutako bere puntu guztiekin egiteko deialdia EAJK egindako eskari bati erantzunez egin dela, eta beraz beraiei ematen diela hitza.

I.- EGUNGO LAZKAOKO ZABOR BILKETA SISTEMAREN BALIDAZIOA.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du ez-ohiko bilkura eskatzea aspalditik idatziz egin da zeuzkaten galderei erantzunik ez izanaren ondorioa izan dela eta baita ere Sasieta Mankomunitatean konfidantzazko aholkulari bat hartzeko proposamena dagoela jakinik horri buruz hitzegiteko. Puntu honi dagokionean berriz zera esaten du, eskaten dutena orain arte inplantatuta dagoen 5. edukinontziaren haritik sakontzen jarraitzea dela, eta jakin nahiko luketela ea Bilduk ontzat ematen al duen sistema hori.

Alkateak (Bildu) erantzuten dio ezetz, ez dutela ontzat ematen eta sistema horri buelta eman behar zaiola. Gehitzen du beraiek dauden sistemak aztertu ondoren, gehien birziklatzen duen sistemaren aldeko hautua egiten dutela.

Urkola zinegotziak (EAJ) galdetzen du gaur egun dagoen sistemaren potentzialidade guztiak kontutan hartuta ea aukera horietatik zein den konbentzitzen ez duena.

Alkateak erantzuten dio edukinontzien akats nagusia zera dela, zer sartzen den ez dela jakiten.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du orain arteko sistema Gipuzkoa osoan kontsentsuatutakoa izan dela eta sistema baliozkoa dela eta egin behar dena lantzea dela; eta atez ateko sistemari buruz esaten du sistema honek beste toki batean botatzen duena ez duela kontrolatzen; esaten du baita ere atez atekoaren gaiarekin gauza askotaz hitzegtzen dela, eta zabor bilketari buruz hitzegin beharrean inzineradorari buruz, zabor tratamenduei buruz eta abarrez hitzegtzen dela.



Gaiaz zabal eztabaidatu ondoren bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua erabiltzen du ezezkoaren alde eta ondorioz proposamena ez onartzea erabakitzen du.

II.- TXARTEL BIDEZ ERABILTZEN DEN KONTENEDORE MARROIAREN INGURUAN INKESTA BIDERATZEA.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du gaur egungo oraingo sistemaren erabiltzaileei inkesta egin beharko litzaiekela eta hori dela eskatzen dutena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du egokia ikusten duela eta ondorioz proposamenaren alde dagoela.

Alkateak (Bildu) esaten du Lazkaon 5. edukiontzirako txartela eskuratu dutenak herritarren %51 direla, eta Sasietak egindako kontrasteak dioenez 685 familik erabiltzen dutela, hau da, %37ak; esaten du baita ere beste datu bat dela Lazkaon biltzen den errefusak %39ko organikoa daukala.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du berak badakiela datu horiek Sasietako web orri- an daudela, baina sortzen zaion bigarren galdera dela ea datu horiek jakinda zein neurri hartu diren hori konpontzeko, eta beraz ea helburua birziklaia edo sistema den.

Gaia zabal eztabaidatu ondoren bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua ezezkoaren alde erabiliz, proposamena ez onartzea erabakitzen du.

III.- TXARTELA ERABILTZEN EZ DUTENEI (EZ DUTELAKO EDO ERABILTZEN EZ DUTELAKO) KONTZIENTZIAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA BIDERATZEA.-

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du aurreko puntuetan esan denarekin, urte eta erdian ezer ez bada egin, behar bada hau eskatzea alferrikakoa izango dela baino tira.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du inoiz ez dela berandu eta beti dagoela aldatzeko aukera.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du norbaitek erreziklapena egitea erabakitzen duenean urteko egun guztietan erreziklatzen duela.

Alkateak (Bildu) esaten du kontzientziazio eta sentzibilizazio kanpainari baiezkoa esaten dietela eta ekintza plana egin zutela eta ekintza plan hori eragile guztiengana zabaldu zutela, denengana iristeko hautua egin zutela eta puntu hau hanka motz gelditzen dela kanpaina txartela ez dutenetara bakarrik mugatzen dutelako.

Urkola zinegotziak esaten du egia dela hau puntu konkretu batetara zehazten dela zeren sistema bera dauzkan potentzialitateak aprobetxatzen ez badira ez duela ezertarako balio ez batak eta ez besteak, baino hori, dagoen informazioa aprobetxatu nahi delako dela eta horri heldu nahi badio ezezkoa justifikatzeko ... baina sentzibilizazio kanpainarena orokortasunean ere aipatzen dela.



Albisu zinegotziak (EAJ) gogoratu behar dela pertsona horiek beraiek etorri direla hori eskatzera, eta ulertzen dutela hori dela lehen lehenengo erronka.

Alkateak esaten du beraiek (EAJ) txartel bidezko sisteman intziditu nahi dutela soilik eta aldiz beraiek (Bildu) orokortasun batean egin nahi dituztela gauzak.

Urkola zinegotziak esaten du legealdi honetan egin diren hainbat gauza beraiek ondo ikusten dituztela, baina aldiz nola egin diren, hau da formak, ezetz.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du txartelaren erabileraren sentsibilizazio kanpainarena ondo egon litekela eta bata bestea ez duela kentzen.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua ezezkoaren alde erabiliz proposamena ez onartzea erabakitzen du.

IV.- ERREFUSA JASOTZEKO ERE TXARTEL SISTEMA IPINTZEA.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du hurrengo puntuarekin lotuta dihoala baina ikusten dutela materia organiko birtziklatzen dutenari buruzko datuak oso garantzitsuak direla, eta zeinek birtziklatzen duen eta zeinek ez ere datuak jaso beharko liratekela, gero hobariak eta abar jartzen direnerako eta abar.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du honekin lortuko litzakena, erreziklatu nahi ez duenari oztopoak jartzea dela eta erreziklatu nahi duenari erraztasunak ematea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ados dagoela proposamenarekin.

Alkateak (Bildu) esaten du ez daukala ezer berririk esateko eta bozketara jartzen du gaia.

Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua erabiliz proposamena ez onartzea erabakitzen du.

V.- GAIKAKO BILKETA ETA AUTOKONPOSTAIARI HOBARIAK EZARRIKO LIZKIOKEN ORDENANTZA LANTZEN HASTEAK.-

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du iazko azaroan egindako Osoko Bilkuran, Zero Zaborrek egindako alegazio bati erantzunez, hobariak jartzearena eztabaidatu zela. Gehitzen du pentsatzen duela erantzuna ezezkoa izango dela, urte bete pasa eta ez dutelako inolako erantzunik jaso.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du osoko bilkura hartan horri buruz hitzegin zela eta ondo legokela odenantza hori garatzea.

Alkateak (Bildu) esaten du beraiek ere gaikako bilketa eta autokonpostaiari hobariak jarriko dizkion ordenantza beharrezkoa ikusten dutela. Gehitzen du gai hori Sasieta mankomunitatea ari dela lantzen eta azterketa bukatutakoan emaitzak herrietara pasatuko direla bakoitzak zer egin dezaken eta nola lantzeko. Esaten du beste gauza asko landu beharko direla baita ere, nolako programa informatikoa erabili eta abar.



Urkola zinegotziak esaten du zehaztu nahi duela beraiek ez direla autokonpostaiaz bakarrik ari baizik eta zerbait orokorragoaz.

Albisu zinegotziak (EAJ) galdera egiten du, ea noizko aurreikusten den erantzuna izatea.

Alkateak erantzuten dio hurrengo urte hasieran egongo dela amaituta Sasieta egiten ari den azterketa hori. Bestalde esaten du gaiakako bilketa egitea denok egin beharreko zerbait dela ez duela ikusten hor hobaria aplikagarria denik.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 6 abstentzioz (Bildu) proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- AHALIK ETA AZKARREN LAZKAON JASOTZEN DEN ZABORRAREN GAIKAKO BILKETA-REN EGUNEROKO PISAKETA ZEHATZA EGITEA.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du Itsasondo adibide bezala hartuta eta han egin zen bezala eta hemen ere datuak izan ditzagun, Lazkaon egiten den zaborraren gaiakako bilketaren eguneroko pisaketa egitea proposatzen dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du proposamena ondo ikusten duela.

Alkateak (Bildu) esaten du proposamena jaso zutenean ingurugiro batzordean aztertu zela eta Sasieta mankomunitatean lantzen ari den gai bat dela eta ahalik eta azkarren prest egotea espero dela eta proposamena ondo ikusten dutela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VII.- PAUSU HAUEK EMANGO DIRELA IRAGARRIZ ETA ERABILERAREN INGURUAN INFORMATUZ, INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA BURUTZEA.-

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du eskatzen dutena horixe dela, konpromezua hartzea sentsibilizazio kanpaina hau burutuko dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du nahiko lukeela udalak sentsibilizazio kanpaina egingo balu eta esatea osoko bilkura honetara aurkeztutako bost neurritatik bi bakarrik onartu dituela eta hiruri ezetza eman diela.

Alkateak (Bildu) esaten du ezezkoa emango diela proposamen honi; Sernari esaten dio erreziklaje guztiaren alde baldin badago atez atekoa ere onartuko duela ala?

Serna zinegotziak erantzuten dio hori ez dela erreziklajea baizik eta bilketa sistemaren aldaketaz hitzegiten dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua erabiliz proposamena ez onartzea erabakitzen du.



VIII.- SASIETAKO LEHENDAKARIA DEN LAZKAOKO ALKATEARENTZAKO KONFIANTZAZKO AHOLKULARI BAT KONTRATATZEKO PROPOSAMENARI EZEZKOA EMATEA.-

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du orain ere lehen beste gai askokin bezala kanpotik enteratu direla Sasietakoko lehendakariak aholkulari baten beharra daukela Sasietakoko lanak aurrera eramateko eta harritura entzun dutela hori orain artean Sasietan ez delako horrelakoren beharrik izan eta gainera leku guztietan murrizketa beste konturik entzuten ez den garaiean planteatzen dela eta ez bakarrik murrizketak baizik eta lehentasunetaz ere hitzegin beharko dela eta zaborrak diren lehentasuna dutenak edo beste gai batzuek eramaten dituzten GOIEGI edo beste erakundeetan ere horrelakoak planteatuko diren.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du udalaz kanpotik jakin izan dutela gai honi buruz eta alde guztietan murrizketa besterik entzuten ez denean proposamen hau entzutea ez dutela ulertzen, eta orain arte beharrik ez bada egon orain ez dutela ikusten zergaitik bai eta aurka bozkatuko duela.

Alkateak (Bildu) esaten du badirudiela krisia beraien legegintzaldiarekin batera iritsi dela, eta esaten du beraien baietz egin zituztela beraien murrizketak, beraien soldateetan eta beraien asignazioetan eragina izan zutenak. Esaten du baita ere aholkulari postu honen aurkako proposamena aurreko legegintzaldian horrelako postuetan egon diren zenbait lagunek planteatzea harrigarria egiten zaiela. Esaten du baita ere zaborren gaiak garrantzi handia hartu duela, gaur ez-ohiko osoko bilkura hau egitera eramateko adinakoa, eta zaborren gaiak izango duen garapen ikaragarri honek Sasietak inoiz izan duen lan gehien izatea dakarrelako berekin, eta guzti hori kudeatzeko ditugun baliabideak oso eskasak direla. Eta gehitzen du horretarako aholkulari bat hartzearen beharra ikuten dutela.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du hemen planteatu dena ez dela postu mota horiek ezbaian jartzea baizik beste zerbait dela, hau da, lehendik gerente bat eta teknikari bat badaudela Sasietan eta beste postu baten beharra dela ikusten ez dena.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du ea Gipuzkoa osoan beraien bakarrik al diren behar hau daukatenak, eta gehitzen du Sasietakoko lanetan ardatza kontsentsua izan balitz lanak banatuagoak eta errazagoak izango lirakela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botuz (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua erabiliz proposamena ez onartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko hamarrak eta hogeita bat direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

